



Greba orokorra Hego Euskal Herrian

Bizkaiak ez zuen atzo lanik egin

Lanuztea erabatekoa izan zen industria, zerbitzuak eta Administrazioan

Erabatekoa izan zen atzo Bizkaian sindikatu guztiek deitutako 24 orduko lanuztea. Industria, zerbitzuak eta Administrazio publikoan ez zuen inork lan egin. Arratsaldean, berriz, milaka langilek manifestazioan zeharkatu zituzten Bilboko kaleak, 'dekretukada', Greba Legea, industri deuseztapena eta Bateratasun Planak salatzeke.

M.A. / **BILBO**

Erabateko jarraipena izan zuen greba orokorrak Bizkaian ere. Goiz partean istiluak izan ziren Bilbon Poliziak piketeak erasotzerakoan eta aipagarria da, baita ere, gutxienezko zerbitzuak ez zirela kasu askotan bete, garraio publikoaren arloan batez ere.

Metal, kimika, elikadura, pargintza eta arte grafikoen sektoreez gain, bat egin zuten grebarekin eraikuntza, osasuna, banka, irakaskuntza, merkataritza, ostalaritza eta aduanetako langile gehienek.

Goizeko lehen orduetatik Bilboko denda eta banketxeetako atak itxita egon ziren. Sindikatu guztietako partaideek osatu zituzten pikete informatibo taldeek Bizkaiko hiriburuko kaleak

zeharkatu zituzten, betiere Polizia Nazionalaren furgoiak inguruan zituztela.

Goizeko bederlatziak aldera istiluak izan ziren Gran Vian dagoen Corte Ingles denda handiaren atarian. Bertako langileak greba egitearen alde agertu baziren ere, arduradunak atak zabaldu ziren. Han zeuden piketeen protestak Polizia Nazionalak isilarazi zituen eta erasoaren ondorioz pertsona bat zauritu zen eta beste bat atxilotu zuten. Istiluak izan ziren baita ere Haziendaren egoitzan, sindikatuetako ordezkariak bertara sartu eta Ertzaintzak gas spraya bota zienean.


Udal autobusik ez zen ibili Bilboko kaleetan zehar eta Eusko Trenbideak-ek gutxienezko zerbitzuak bertan behera utzi zituen. Sondikako aireportuan ere zenbait hegaldi ez ziren atera.

Aipatzekoa da Bilboko Bertsak ez zuela grebarik egin eta inbertsoreek beren lanarekin jarraitu zutelana.

Bilboko kaleetan zenbait barrikada jarri baziren ere ez zen trafiko arazorik izan, kotxe gutxi bait zebiltzan. Barrikadak izan ziren baita ere Erandioko kaleetan eta Ezkerraldeko errepideetan goizeko lehen orduetan.

MILAKA LANGILE MANIFESTAZIOAN

Eguerdiko hamabiak aldera LAB, ESK, CGT eta CNT sindikatuek deituta Bilboko Arriaga



Elorrieta eta Bengoa manifestazio buruan.

XOUSE SIMAL

plazan bildu ziren bi mila lagun inguruk manifestazioa egin zuten Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusiaren pareraino.

'Dekretukada', 'Bateratasun Plana, Greba Legea eta industri

deuseztapena salatu zituzten manifestazioan.

Arratsaldeko bost t'erdietan abiatu zen Bilboko Jesusen Bihotzaren enparantzatik milaka langile bildu zituen manifestazioa.

Mobilizazio honetan ez zen sindikatuen arteko batasunik izan. Gran Vian barrera ESK, EILAS, CNT eta CGT sindikatuek deitutako manifestazioa abiatu zen aurretik, ondoren ELA eta CCOOeko kideak bildu zituena eta jarraian LAB sindikatuak deiturikoa joan zen.

'Dekretukada' eta industri deuseztapenaren aurkako lemak oihukatu zituzten manifestazioan. Jose Elorrieta eta Santiago Bengoa ELA eta CCOOeko idazkariak greba orokorraren arrakasta azpimarratu zuten, Madrilgo Gobernuak «hau ikusita» dekretua «atzera bota» beharko du eta «sindikatuekin negoziatu». Elorrietak egindako adierazpenetan, greba egunean nagusitu zen «normaltasuna» aipatu zuen. «Nahiz eta batzuek aurkakoa esan, baketsua izan da lanuztea» azaldu zuen ELAko kideak. Pikete ugari izan zela adierazi zuen, «jarrera normala» izan zutela eta bestelako arazorik ez zela gertatu.

LAB sindikatuko ordezkariak manifestazioaren bukaeran azpimarratu zuten, «greba honen ondoren sindikatuen arteko indar erlazio berria» egongo da «eta gu gairainontzera» sindikatu maila berean hitzegiteko baldintzatan izango gara». Presoak gogortzeaz gain, «lortu dugun batasunetik industria eta gure herria defendatzen» jarraitzeko konpromezua berretsi zuen LABek.

Garraio publikoan ia ez zen gutxienezko zerbitzurik izan

M.A. / **BILBO**

Eragin berezia izan zuen grebak Bizkaiko garraio publikoetan, ez bait ziren bete Eusko Jaurlaritzak aurretik dekretuz ezarritako gutxienezko zerbitzu gehienak.

Horrela, hiri barruko autobus zerbitzurik ez zen egon egun guztian. Bilbori dagokionez, Gasteizko Gobernuak agindu zituen autobus zerbitzuen % 25eko gutxienezkorik ez izan. Bizkaiko hiriburuko eta inguruko herrietako autobus zerbitzuaz arduratzen den TCSA enpresako iturrien arabera, goizeko lehen orduetan Barakaldoko garajetik bi autobus atera zirenean, bertan zegoen langile talde batek gurutzu zituen eta gorpilak hustu, gainontzeko kotxeen irteera oztopatu.

TCSA konpainiak Deustuan daukan garajetik ere ez zen gu-

txienezko zerbitzuak egiteko autobusik atera, gidariak hala erabaki ondoren. Gogoratu sindikatuek gehiegizkotzat jo zutela Gasteizko Lan Sailak garraio arlorako ezarri zituen gutxienezko zerbitzuak eta langileen esku utzi zutela berauek betetzeko erabakia.

EUSKO TRENBIDEAK GELDIRIK

Eusko Trenbideak deakeko trenak ere ez zituzten gutxienezko zerbitzurik bete izan Bizkaian. Goizean tren geltoki askotako atak silikonaz itxiak agertu ziren eta ez zituzten atak zabaldu, konpainiako iturriek EGUNKARIAri adierazi ziotenez. Beraz, Plentzia, Lezama, Durango eta Bermeo Bilbokin lotzen dituzten trenak geldirik izan ziren.

Era berean, tren konpainiak dituen autobus zerbitzuek ere ez zuten funtzionatu.



Bilboko Corte Inglesean bildutako piketea.

XOUSE SIMAL

Ezkerraldea eta Urduñako lineaz arduratzen diren Renfeko ibilaldi laburretarako trenak izan ziren gutxienezko zerbitzuak

normaltasunez bete zituzten barrak.

Dena den, nahiz eta goiz partean zenbait barrikadak Bizkaiko

errepideak oztopatu zituzten, arratsalderako normaltasuna nagusitu zen eta kotxe ugari abiatu zen hondartza aldera.